

ORIXE ETA URKABE-BERTSOAK

Pello Esnal adiskideari, merezi onez

1. Sarrera

Hamasei bat urte nituela Orixeren *Euskaldunak* poema irakurri nuen. Euskaraz irakurri nituen bi lehen liburuetaiko bat zen; bestea, Lizardiren *Biotz-begietan* zen. Bi liburuok aberatsak eta indartsuak ziren hamasei urteko gaztetxo barentzat ez ezik, bai beste edozein irakurlerentzat ere. Bi liburuetatik zenbait bertso eta olerki ere buruz ikasi nituen. Orixeren liburuan ideia batek –beste zenbait herri-kanta, gertaera eta abarren artean– harritu eta are zirrarratu ninduen: urkabera zihoazen kondenatu euskaldunek, borrareroak urkatu baino lehentxoago, beren krimenak bertsotan kantatzen zituztela... Hitzez hitz honela zioen: “Urka-bear bakoitzak bere egin-okerra berez naiz bestez, bazun koplatzeko oitura”. Hamasei urte nituela, bertatik bertara, ez nuen urkaketa-rik ikusi, Pio Barojak edo Lord Byron batek bezala. Pelikuletan, ordea, neure adineko beste gazteek bezala, ikusiak nituen hainbat ajustiziamendu. Oso ideia erromantikoa egiten zitzaidan, eta, ez guttiz ezinezkoa orain egiten zaidan bezala, kondenatuak, zutik, urkabean, borrareroa zain zeukala, bertsoak euskaraz kantatzea...

2003an heriotza-bertsoen gaineko artikulua bat argitaratu nuen (Kalzakorta: 2003): “Urkabe-bertsoak euskaraz: estudiant-

te gaztearenak eta beste”. Artikulu horretan zenbait heriotza-bertso edo urkabe-bertsoren gainean hitz egiten nuen. Uste nuen, eta berdin pentsatzen jarraitzen dut, euskarazko urkabe-bertsoek interes handia dutela alde askotatik. Interesetako bat, esaterako, hauxe da: hainbat bertsopaperetako gertaerak egiazko gertaera odoltsuetan dute oinarri.

Hemeretzigarren mendeko kasu bi bakarrik aipatuko ditut. Jose Tejeriak bere aita hil zuelako 1898. urtean, Azpeitian, 1900eko urtarrilaren 14an, urkatu zuten, lepoan burnizko uztaia jarrita, hots, garrotea emanda. Jose de Larrañaga mendarotarrak Etxebarrin (Bizkaian, Markinatik bi kilometrora), 1825ean, senar-emazteak eta alaba hil zituelako Bilbon urkatu zuten garrotea emanda, 1826 urtean. Euskal Herriko zenbait heriotza-gertaera bertsopaperetan zabalduak izan dira. Kantapaper hauen gainean hitz egin zuen lehen euskal idazleetako bat Nikolas Ormaetxea (1888-1961) ‘Orixe’ izan zen.

Orixe idazlearen aipamena egiten nuen 2003. urteko lantxo horretan. Orixek, gaurko begietatik aztertuta, ideia bitxiak zituena XIX. mendeko eta are beharbada lehenagoko euskaldun hiltzaileen gainean. Ideia horiek badute, beharbada, erromantikotasunetik, eta, era berean, kristau sinesmenaren ikuspegitik ulertu behar dira. *Euskaldunak* poeman txertatu zuen ‘Imozko apezgaia’ bertso saila nekez uler daiteke 1927an argitaratu eman zuen “Los reos poetas” artikulua astiro aztertzen ez bada. Era berean, 1927ko urteko artikuluan idazten dituen zenbait ideia ez dugu uste errealitatearekin zer ikusia zutenik, artikulu honetan erakutsiko dugunez.

2. *Euskaldunak* poema eta heriotza-bertsoak

Orixek, guk dakigula, urkabe-bertsoren gaineko bigarren aipamena bere *Euskaldunak* poeman egin zuen. Poemaren azken bertsoan esaten duen bezalaxe, 1934. urterako bukatua zuen fa-

ma handia emango zuen poema¹. Liburu honetako IV kapitulu-
luan, *Iruleak* delakoan, zenbait herri-bertso, balada eta Aboiti-
zen “Txanton Piperri” eman ondoren, kapitulua giltzatzeko
urkabe-bertsoz osatutako sail bat eman nahi du. Honelaxe dio:

Zenbait urkabe-bertsu, Lanz’ko lapurrena,
ta amairu eriotza ein zitunarena,
ta abar, kantatu ziran orien urrena,
ikus emen Imoz’ko apezgaiarena.

Urka-bear bakoitzak bere egin-okerra
berez naiz bestez, bazun koplatzeko oitura.
Gure gaiztagin onek ba zizun eskola,
ta Jainkoak lagunduz mintzatu zan ola.

Bi ahapaldi hauetan konposizio-hitz interesgarri bi datoz: ba-
ta *urkabe-bertso* da, hau da ‘heriotza-bertsoa’ adierazteko hitz
konposatua eta bestea *urka-bear* delakoa, hau da, ‘kondenatua’.
Bi bertso hauen ondoren Orixek berak asmatutako sail bat txer-
tatzen du herriak kantatzen zituen urkabe-bertsoak ez zitzaizkio-
lako (guztiz) onak iruditzen. Honelaxe dio berak oin-oharrean:

Urkabe-bertsorik, osorik eta gisakorik, ez dut arkitu emen
sartzeko. Neronek antolatu dut oiturari nagokiola.

Asmatzen dituen urkabe-bertsoek Imoz’ko apezgaia dute
izenburua. Bertso hauek IV-Iruleak sailean, XXXIII zenbakia
dute. Hona hemen:

1

“Egirik ba da, egi da naski
urka-bearraren itza;
aundiena da Jainkoarena,
arren urrena apez-itza.

Bi on tartean, ez da gezurti
ni lakoen eriotza.
Entzu itzazute zenbait egi-itz
adieraz al ba nitza.

¹ Hona bertsoa tolesturik: Bertsolariak oitura baitu/ esaten urtegarrena,/ bertso lan oni jakin zer urtez eman diodan azkena. Kristo jaiorik emeretzireun/ ogei ta amalaugarrena./ Ederrik ba du, Arena du; ta/ txarrik badu, neronena.

2

Jainkoak deitu nindun bidetik
aldegin nuen, damurik.
Aren legea irakasteko.
ez nuen izan gogorik.
Orain, ordea, emen nagozu
jendei aurpegi emanik,
urkamendiko eser-lekua
sermoi-alki bihurturik.

3

Senar-emaztek bi semerekin
il nituen gau batean:
iñork ikusi ez nindula-ta
geldi naiz erdi-pakean.
Barneko oiua ezin isilduz
nenbillen urtebetean,
gauetzko loa egiten nula
pekatu aren gaiñean.

3

Eliz batean sartu naiz eta
aditu dut bear ainbat;
oiu sarkorrak entzunik ere
biotza zekena daukat.
Apaiza ari zan, pekatu egin
ta gorde oi dunarentzat:
neretzat jator itzegin arren,
nik ez itz aiek neretzat.

4

Jainkoa (apeza) “Kain” oiuka
ta Dabidi igarle Natan;
barnean piztu nai zuen arra
neronek itotzen nuan.
Aiek gogor, ni ez biguiñago,
aldegin nizun andikan,
piztu nai zuen ar arengandik
iges egin ote-nezan.

5

Alako batez, geroenean,
atzitu nau justiziak;
ain biguindu zuten biotz au
presondegiko kateak.
Eriotzera galdu ninduten;
orduan ziran nekeak!
il-bildur onek mendera ditu
ni lako ezigabeak.

6

Nere buruaz, noizbait bear ta,
lotsatzen nintzan asia;
eriotzaren mugatik ara
ba da leize izugarria.
An erortzea jakiña neukan
ez ba nun damu bizia;
apeza laister eskatu nizun
ta, argaz, zeruko grazia.

7

Gizon sartu ark astindu nindun
burutikan beatzera;
barren au lasa-naiez, aipatu
zidan Jaun errukibera.
Bildur-lotsatik eraiki nindun
Jaungoikoa maitatzera,
Jaunak bakarrik eskuan daukan
maite-damuan urtzera.

8

Pekatu ordezkaintzen diot
eskatu ere eriotza;
urkabez baiño damuz iltzeko
berri zadala biotza.
Ez dut ez etsai nik, urkabea
altxako didan arotza;
ez, estutuko naun sokaduna;
ez dut ikara lur otza.

9

Lepa-sokaz egiten dula
bioz-damua ler bedi;
gaiztakeri ok an urtu bitez,
zerura zuzen jua nadi.
Baiño ordurako, zentzua galduz,
ontan irau ez ba negi,
ordukoz orain damu dut, Jauna,
damu bioz-biotzeti.

10

Zuk, nere eskuz ildako oriek,
barka idazute zerutik:
Jaunaren altzo maitagarrian
ez daiteke gorrotorik.
Barka idazute, nere etxeoak,
utzi zaitutet bezturik;
damuaz, orde, nola barkatzen
ikasi Jainkoagandik.

11

Neri begira zauten guzi ok,
ikasi zer dan gaiztoa:
emen nauzute nere egiteaz
urkabe ontan igoa.
Luzaro bage, biurrez estu
didatenean lepoa,
buka zazute, neronek ezin
bukatu dutan Kredoa.

12

Berriz ta berriz azkeneraiño
barkatu, Jesus aundia!
Idazu gaur gaur paradisu
lapur onaren zoria.
Zure laguntza-bidez idazu
damu erdiragarria:
ikusiko dut Jainkoaren Jainko
itzaltzen ez dan argia”.

Testu honek baditu, nola ez, mila kontu iruzkingai. Hizkuntzaren aldetik, harrigarria egiten zaigu, batetik, Bizkaiko zenbait hitzen aukera. Imoz herriko apezgai ahotan are harrigarriagoak gainera. Imoz, Ultzamako herri txiki baten apezaren ahotan, alegia. Hor daude, esaterako, *lako* forma bi aldiz agertzen dena. Lehen bertsoan *ni lakoen eriotza* eta bosgarreneko ni *lako ezigabeak*. Seigarren bertsoa *argaz* delakoak Bizkaiko (*b*)*aregaz* edo (*b*)*agaz* dela ematen du. Era berean, *al banitza* eta 9. bertsoa *ontian iraun al ba negi*. Mendebalderagoko euskalkietako *urkamendi* hitza eta ekialderagoko *urkabe* (bi aldiz zortzigarren bertsoan) biak sail berean dakartza. Era berean, *bage* mendebaldekoa (11. bertsoan *luzaro bage*) eta gabe bertso-sail berean daude (5. bertsoan, *ezigabeak*).

8. bertsoan *ez dut ikara lur otza* horrek bati baino gehiagori Milia Lasturkoren harako *azpian lur otza, gañean arria* ekarriko dio gogora. Baina Orixek ‘Imozko apezgaia’ urkabe-bertsoen sailean baditu hainbat ideia saila irakurtzetik nekez ondoriozta litezkeenak. Ondoko puntuetan ikusiko dugunez, Orixek zituen ideiak 1927an argitaratu zuen “Los reos poetas” artikuluan datoz argiro azaldurik.

3. Orixeren “Los reos poetas” artikuluko ideiak

orixek, 1927ko maiatzaren 27an, Bilboko *Euzkadi* egunkari abertzalean, “Los reos poetas” delako artikulua eman zuen argitara. Artikulu honen izenburuak garbi asko adierazten du zertaz hitz egingo duen Orixeko idazleak: hiltzera kondenatuak dauden poeten edo ‘bertsolariak’ izango ditu mintzagai. Artikulu hau oinarri harturik hainbat ideia garatuko ditugu puntu honetan.

3.1. Kondenatuak berak bertsoak sortu eta jende aurrean kantatzen ditu urkabea pulpitu bihurturik

Orixek uste zuen urkamendian urkatzera zihoan kondenatu bakoitzak –haren hitzetan ‘urka-bear’ bakoitzak– bere pasa-

dizoa kantatu ohi zuela urkabean, urkatu baino lehen, jendearen aurrean. Hona hemen nola dioen berak:

En nuestra siempre desdeñada y no bien conocida literatura popular se cultivó hasta nuestros días un género de poesía, cuyas muestras se echan de menos en nuestros cancioneros. Hemos alcanzado la tradición, que en nosotros se interrumpe y desaparece definitivamente, de que los más insignes criminales, los destinados al cadalso, cantaran el arrepentimiento de sus crímenes en verso, construido por ellos mismos.

Orixek garbi dio pasarte honen azken esaldian urkabera kondenatuak berak asmatu eta kantatzen zituela bertsoak. Harigarria badirudi ere hori da Orixeren ideia. Kondenatuak, sortu ez ezik, kantatu ere urkatu baino lehentxoago kantatu ohi zituela.

Bestela esan, Orixeren arabera, urkamendira joaten zen urkagaiak bere pasadizoa bertsoan kontatzen zuen. Orixeren arabera, urkagaiak bere pasadizoa kontatu ondoren damua ere bertsoan adierazten zuen. Urkabe edo urkamendia, beraz, urkagaiak egindako heriotzak eta damua kantatzen zituen bitartean pulpitu edo sermoi-alki bihurtzen zen. Orixerengan ideia hau guztiz inportantea da: urkabea edo urkamendia pulpitu bihurtzearena. *Sermoi-alki* hitz konposatua bera Orixeren asmakizuna da eta bi aldiz erabiltzen du bere obran, *Barne-muinetan* lanean eta Imoz'ko apezgaia deritzan bertso-sortan. Hitz konposatu hauek sortzeak, jakina, idazlearen sena adierazten dute. Hona bertsoaren azken erdia: *Orain, ordea, emen nagozu/ jendei aurpegi emanik,/ urkamendiko eser-lekua/ sermoi-alki biurturik.*

Orixek kondenatuak jendearen aurrean kantatzen duelako ideia “Imoz'ko apezgaia” sailean garbi erakusten du. Lehen bertsoan *Entzu itzazute zenbait egi-itx adieraz al banitza*, bigarren bertsoan, lehentxoago aipaturiko pasartean: *Orain, ordea, emen nagozu jendei aurpegi emanik, urkamendiko eser-*

lekua sermo-alki biurturik. Hamaikagarren bertsoan, esaterako, *Neri begira zauten guzi ok/ ikasi zer dan gaiztoa*.

1927ko artikuluko berean ideia are argiago emango du:

Era costumbre, como se lo oímos decir a nuestros abuelos, que todo reo hiciera el relato de su triste hazaña en verso, a no ser que careciera de la facultad de rimar, en cuyo caso encargaba a otro que los compusiera en primera persona. El plan de la poesía era el siguiente: Exposición del hecho criminal, envuelto en moralejas, haciendo recalcar el escarmiento que hacía en su cabeza la justicia humana; demanda de perdón a los circunstantes, a los de su familia, a Dios; profesión de fe católica, con la esperanza de obtener el perdón y la vida perdurable. A nada que se supiese rimar, las circunstancias favorecían la inspiración. Dada la facilidad de nuestra lengua y la práctica, raro sería en otros tiempos el que no versificase por sí mismo.

Idea hau emana zuen *Euskaldunak* poeman bertsoz *Urka-bear bakoitzak bere egin-okerra/ berez naiz bestez, bazun koplazteko oitura* dioenean. Pasarte honetan badira kontu guztiz harrigarriak. Urka-beharrak gauza ez bazen bertsoak osatzeko bestek –esan dezagun bertso-jartzaile profesional batek– egiten zituen bertsoak baina ulertzen da bestek egindako bertsoak kondenatuak berak kantatzen zituela urkabeen: *[...]que todo reo hiciera el relato de su triste hazaña en verso, a no ser que careciera de la facultad de rimar, en cuyo caso encargaba a otro que los compusiera en primera persona*. Ez al da harrigarria? Eta hori gutxi balitz Orixek uste zuen kondenatu ia guztiak beren pasadizoa bertsoan euskaraz sortzeko gauza zirela euskaraz bertsoak egitea erraz xamarra delako hizkuntzak eskaintzen dituen erraztasunengatik: *“Dada la facilidad de nuestra lengua y la práctica, raro sería en otros tiempos el que no versificase por sí mismo”*. Inozotasun ikaragarriko baieztapenak dira. Behin honetaraz gero, galdera bat egingo genioke Orixeri? Euskaraz erraza bada bertsoak sortzea, eta kondenatu gehienek hala egin bazuten, zergatik zuk ez zenuen “gisako-

rik” edo behar den bezalakorik aurkitu? Galdera honen inguruan geroago adieraziko dugu zerbait.

Orixek aipatzen dituen adibideak bere esanaren indargarri dira. Ematen dituen adibide guztietan lehen pertsonan emanak daude bertsoak. Adibide hauek, ordea, ez dira guztiz berak uste zituen modukoak. Artikuluaren lehen adibidea Aiako Muazko heriotzarena da, Jose FranziskoTejeriak bere aita hil zuelakoa. Honela dio Orixek:

El último (poeta reo alegia) que recordamos es el homicida de Aya, ejecutado en Azpeitia, cuyos versos recorrieron todos los rincones de nuestro País, como pregoneros del escarmiento en cabeza ajena.

Orixek dioten el último reo hori halaxe izan zen Jose Franzisko Tejerria jende aurrean, Gipuzkoan eta are Euskal Herri osoan garrotea eman zioten azken kondenatua –edo kondenatuenetakoa, seguru zehaztu ez badugu ere– izan zen. Bertso hauek, jakina, ‘Muazko heriotza’ bezala ezagunak dira eta bertsopaperetan zabalduak izan ziren. Bertso hauek batez ere bi bertsopaper motatan zabaldu ziren. Bertsopaperik zaharrenak izenburu hau dauka: *Berso berriac: Azpeitico hurcamendiaren gañian jarriac*. Gerora argitaratu zirenak beste hau: *Bere aitari eriotza emandako semearen bertso zarrak*. Bertsopaper hauek ez dute izenperik baina gaur egun badakigu nor eginak diren Azpeitiko Juan Maria Zubizarreta bertsolariak (1855-1905). Antonio Zavalak 1969 urteko *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria (1855-1905)*, (Auspoa liburutegia, 82 zkia) liburuan argi bezain argi erakutsi zuen bertsoen egilea J. M. Zubizarreta zela eta kriminala, ostera, Jose Franzisko Tejerria. Orixek uste zuen, heriotzak eta heriotzaren inguruko gertaerak lehen pertsonan emanak daudenez gero, Jose Franzisko Tejerria bera zela bertsoen egilea.

Orixek beste adibide batzuk ere ematen ditu. Hurrengoa hauxe da:

De un individuo ahorcado en Bayona, por haber matado a un sacerdote, se hace constar que había hecho muchos versos durante su vida.

Aipamen horrek garbi adierazten du “Ap(h)ez beltza” baladaz ari dela. Orixek balada hori Francisque Michelen 1857 urteko *Le Pays Basque* liburutik zein Azkueren *Cancionero Popular Vasco* (CPV 381 kantu-zenbakia) ezagutuko zituen, nahiz eta zehaztasunez bata zein bestea aipatzen ez zituen. Orixeren zehar-aipamenak adierazten digu Azkueren *Urteak zoinbat egun tu?/Hemen zortzietan orhoitu. Bortebiruren seme horrek bainbertze ferso emanditu* bukaera interpretatu zuela *se hace constar que había hecho muchos versos durante su vida* esaldiak adierazten digunez. Balada hau ere, jakina, lehen pertsona emana da. “Apez beltza” baladaren gainean zehaztasun eta eredu gehiago ikusi nahi duenak jo beza *Euskal baladak: azterketa eta edizio kritikoa*, Ilanera (Kalzakorta: 2017, 67-92)

Aquel monstruo de iniquidad, que cometió trece homicidios (“amairu eriotza”) pedía a su hermana religiosa que le encomendase a la Virgen.

Aipamen hori egitean “Berso berriac lapur famatuarenac” bertso sailarenak zirela uste genuen, sail horretan hamahiru direlako heriotzak, baina Orixek aipatzen duen bertso-erdia ez dator lapur famatuaren sailean: “*Gazteritu (sic) bear diot/ arreba mojar/ erregutu bezaio/ Ama Birgiñari*”.

Orixek ematen duen azken adibidea Azkueren kantutegitik bildua da. Hona nola dioen:

Dos estrofas incompletas, recogidas en Amorebieta (*Cancionero*, de Azkue V. 2), son muy del carácter. Pondremos la primera, cuyo último verso está suplido por el folclorista, por no recordarlos el cantor:

Au da urkamendiko
aizearen otza,
Jaunaren aurrerako

nik daukadan lotsa;
 zeren egin dodazan
 zazpi eriotza.
 zazpi eriotza ta
 ¡non dot neuk biotza!

Azkuek bere kantutegian (CPV . “Endechas y elegías” saillean, 385. kantua) sail oso bateko bi bertso dakartza. Orixek bi hauetako lehena jartzen du bere artikuluan. Azkuek dakartzan bi bertsoek urkabe-bertsoak dakartzan kantapaper bat izango dute iturria. Azken adibide honetan ere, jakina, heriotzak lehen pertsonan kontatuak daude.

Azpipuntu honetan adierazi dugun Orixeren ideietatik bat bera ere ez dator errealitatearekin bat. Hitz batean esateko: kondenatuak ez ziren poetak. Are gehiago, lehen pertsonan kontatutako bertsoetako gertaerak ez dituzte kondenatuek berrek ontzen. “Los reos poetas”, kasurik gehienetan, *contraditio in terminis*” da. Urkabe-bertsoak lehen pertsonan ematen baziren ere, ez dira urkabeharrak egiten zituelako, lehen pertsonan kontatera bera indartsuagoa zelako baizik. Diogunaren indargarri hainbat adibide daude. Pierre Topet ‘Etxahun’-ek bi sail edo k(h)antore egin zituen eta biak daude lehen pertsonan: “Complainte Heguilus” 1848an eta “Amodio gati” 1854an (Haritschelhar: 1969-1970). Heriotza-bertsoak, jakina, denak ez daude lehen pertsonan kontatuak. Bordel bertsolariak 1864an “Heriotz krudel bat” ondu zuen hirugarren pertsonan.

Lehen pertsonan urkabe-bertso sail askotxo egon arren, ez ditu kondenatuak berak sortu. Iñaki Eizmendi ‘Baserri’-k argi idatzi zuen (Eizmendi: 1962):

Guk eztegu duda aundirik iltzalleak etzituela jarriko bertsoak,
 aren aitorketak ondo ezagutzen zituen bertsolari batek baizik.

Kantapaperetako bertsoak lehen pertsonan idatzirik daudelako kondenatua bera poeta dela pentsatzea inozokeria handia da. Neurri batean, nola ez, ideia erromantikoa eta erreali-

tatearekin zerikusirik ez duena ere bada. Denboraren joanak, nolabait esan, xurigorrituriko ideia inozoa.

Eman dezagun adibide argigarri bat. 1788an egin zen Markinako Goiko Portaleko iturria. Iturriko hiru koplako inskripzioa 1793an idatzi zen. Inskripzioak dituen hiru laukoen egilea Juan Antonio Mogel (1745-1804) zen, Humboldték bere egunerokoan esaten duen bezalaxe (Telesforo de Aranzadi: 1925, 50):

En la fuente, que está muy bonitamente edificada, había inscripciones en vascuence de Moguel, Juan Antonio, un párroco ilustrado en el vascuence. Cuando Josef Astarloa poco después fue *Alcalde*, mandó quitarlas, y poner otras, que él había hecho, pero que habían sido preteridas por las de Moguel. Pronto vino, sin embargo, otro *Alcalde* y se restablecieron las de Moguel. Semejantes celos nacionales dominan en todas las cosas menudas, que atañen a la catolidad.

Inskripzioa lehen pertsonan idatzia dago, baina inori ez zaio bururutzen iturria bera izan denik koplak egilea. Hona, esaterako, lehen koplak:

Carlos irugarrena
Vizcaico jaun dala
Marquiñaco urijac
eguin nau onela.

Lehen pertsonak, inolako dudarik gabe, halako indar aparteko bat ematen dio testuari. Iturriko koplak Mogelenak ote diren galdetuko luke batek baino gehiagok. Denok dakigu halaxe dela; izan ere, Humboldt Markinara etorri zenean 1801ean, iturrian jarrita baitzeuden eta bere bidaia-egunkarian datorren azalpena orduan denen jakinean zegoen kontu bat zelako. Norbaitek dudatan jar dezake datu hau, dudatan jarri ezin dena da iturria behintzat, inola ere, ez dela bertsoen egilea.

Kondenatuak urkabeen bertsoak kantatzea ere ezinezkoa iruditzen zaigu. Urkabea, Orixek dioten bezala, *sermoi-aulki* edo pulpitu bihurtzearena guztiz harrigarria eta ezinezkoa iru-

ditzen zaigu. Nondik ote dator ideia hau? Kontu ezaguna da eresi zaharretan hildakoaren aurrean kantatzen zirela hildakoaren izaera eta gertaerak, Esteban Garibaik adierazten digunez. Eresi horietako bat da, esaterako, ‘Milia Lasturko’ da. Orixek bere aitonengandik entzuna zuela zioen ideia bata zein bestea. Inoiz edo behin, urkabea kondenatuarentzat baino gehiago kondenatua konfesatu duenaren apezarentzat zen eser-aulki edo pulpitu. Jose Franzisko Tejeria urkatu zutenean, garrotea eman ziotenean, bera konfesatu zuen Aizpuru apezak hitz batzuk esan zituen Azpeitiko urkamendian. Honelaxe dio Antonio Zavalak *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria (1855-1905)* liburuan (Zavala: 1969):

Urkamendiko mallak igotzen asterakoan, txorabioa izan zuan, ta Kofradikoak igotzen lagun egin bear izan zioten.

Ta orduan, iñork uste etzuana, Aita Aizpuru jendeari itzegiten asi zan: Tejeriak, bestek konseju ori emanda ta bere burua garbitzearren, bere aita zanaren onra zikindua zuala, bere emaztearekin konpontzen zala eta olako zerbeit esanaz; bañan dana gezurra zala. Bertsoak diotenez, diru-kontua izan zan motibo nagusia.

Aitari gezurrez ezarri nai izan ziotenez, bederatzigarren bertsoa mintzatzen da. Ta, dudarik gabe, orregatixe, kontu garbia etzalako, bertso ori geroko zenbait argitaralditan kendua dago.

Aita Aizpuru’k Tejeria’rantzat barkazioa ta orazio bana eskatuz bukatu zuan.

Aipamen honetan garbi ikusten da “sermoia” egin zuena Aizpuru apaiza izan zela. Kasu hau, ordea, bitxitzat hartu behar da, holako konturik ez baita beste inolako ejekuziotan aipatzen. Ejekuzioa ekintza itzaltsua izaten zen, guztiz beldurgarria, laborria hezurretaraino sartzen duena, eta jendea isilik egon ohi zen urkamendira begira. Jose Franzisko Tejeriarena, ordea, berezia izan zen, bestetan gertatzen ez zena gertatu zelako. Bestetasun hori aita Zavalak argi markatzen du: *Ta orduan iñork uste etzuen, Aita Aizpuru jenteari itzegiten asi zan.*

Urkabe-bertsoak ejekuzioaren ondoren bertsolari batek atera ohi zituen. Hobeki esan, ejekuzio egunerako bertsolariak prest zituen heriotza-gertaeren gaineko bertsoak. Bertso horiek berotan zuten arrakastarik handiena eta batez ere ejekuzio-egunean eta ondorengoetan salduko ziren batez ere. Zenbaitetan, urkabe-bertsoak ejekuzioaren ondoko egunetan salduko ziren. Bertso-jartzaileak bazekien, gainera, urkamendira jende asko gerturatzeko bazen, bertso-paper asko salduko zituela. Adibide argigarri bat Antonio Zavalak ematen digu *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria (1855-1905)* liburuan (Zavala: 1969):

Itxura danez, Zubizarreta bertsolaria ere jende tartean Tejeria'ren bukaera ikusten izan zan. Gero, bertsoak jarri ta inprentarazi zituan. Ta, Azpeitia'ko urrengo azoka-egunean, ara joan zan, bertso-paper-pilla arturik eta ogei bat urteko bere seme Rikardo ta amabi bat urteko seme Antonio lagun zituala.

Ta Azpeitia'n, kantoi batetik-edo, irurak batera bertso kantari asi ziran. Aitak bajo-boza egiten zuan; Rikardok, tenor-boza; ta Antoniok, triple-boza.

Jendea, berriz, bertso-paperak arrapastaka erosten asi zan. Sei milla paper eramanak omen zituan Zubizarreta'k, eta bat ere gabe bueltatu omen zan etxera. Txakur aundi bana saltzen omen ziran.

Zubizarreta bertso-jartzaile buruargiak bai marketing ona egin ere! Hurrengo astean, azoka-egunean, joan zen Azpeitira bertara, bere seme biak lagun harturik, eta hiru bozetara bertsoak kantatuz sei mila kantapaper baino gehiago saldu! Zubizarretak seguru asko XIX. mendean barrena gainerako bertso-jartzaile zein bertso-paper saltzaileek ibili zuten bide bera ibiliko zuen berak ere.

Urkabe-bertsoetako euskara bera ere bertso-jartzailearena zen. Etxebarrian (Markinatik bi kilometro eta erdira) 1825. urtean senar-emazteak eta alaba hil zituen Mendarokoa zen. Urkabe-bertsoetako euskara, ordea, askoz ekialdekoagoa da Nafarroako euskararen kutsukoa. Basarrik dioenez, "bertso oie-

tako izkera ta joskera ikusirik, jarri zituen bertsolaria Oiartzun ingurukoa edo naparra izango zala derizkiogu” (Basarri, 1962).

3.2. Orixerentzat kondenatuaren pasadizua baino inportanteagoa da damua

Orixek zioenez, kondenatuak bere krimenak kontatzea baino inportanteagoa zen damua kontatzea bere jardunean. Horrexetara dator, beraz, iruzkintzen ari garen “Los reos poetas” artikuluko pasarte guttiz argigarri hau:

El asunto no era indigno, pues no se celebraba el delito en sí, ni siquiera se excusaba el poeta del fatal momento en que su pasión le llevara al supremo extravío. De hombres es delinquir y de buenos cristianos el expiar el delito. Cierto que el temor de la justicia humana era la ocasión, el motivo no muy noble que determinaba la serie de actos de retractación por parte del reo: pero ese motivo iba sustituyéndose gradualmente por otros más nobles, hasta llegar, con el auxilio de la religión, al más elevado del dolor perfecto. El hombre es rebelde por naturaleza, y hay hombres más rebeldes que otros que procuran acallar las voces de la conciencia y llegan a ahogarlas para acostarse tranquilos sobre su pecado. Hace falta la voz poderosa de Dios o de algún delegado suyo para despertarlos de esa triste modorra: “Cain, ¿dónde está el hermano Abel?” “¿Acaso –responde, todavía endurecido– acaso soy yo el ayo de mi hermano?” Pero a la relación que Dios le hace de que la sangre de Abel está clamando al cielo, y a la maldición que le intima, llega a reconocer que su pecado es grande en exceso y confesar que no merece perdón. El mismo David, modelo de penitentes, nos ofrece antes de su conversión insigne ejemplo de esa modorra espiritual. Le envía Dios el profeta Natán, quien le propuso la significativa parábola que retrataba fidelísimamente el estado del ungido de Israel. David como si nada de aquello le perteneciera pronuncia el fallo severo de la pena de muerte para el autor de aquellas injusticias. En una ciudad había dos hombres, rico el uno y pobre el otro. El rico poseía grandes rebaños de ovejas y bueyes; el pobre no tenía más que una ove-

juela que compró y la criaba en casa, dándole de comer de su misma mesa, a beber de su misma copa y acariciándola y haciéndola dormir en su regazo. A ese rico le daba pena el sacrificar una res propia para obsequiar a un convidado, y apoderándose de la ovejuela del pobre la degolló y preparó con ella el banquete. “El que ha hecho tal es digno de muerte” –exclama David airado–. “Tú eres ese hombre” –le responde Natán–. Entonces cae en cuenta David de su doble crimen, cometido en Urías y su mujer, y, arrepentido, escribe el sublime canto de penitencia, que desde entonces se está repitiendo sin cesar por los pecadores que vuelven a Dios. La plena reflexión del delito engendra como primer afecto la vergüenza, que, pasando por el dolor, llega al amor perfecto. Asimismo el temor de la justicia humana y del más terrible de los males físicos, la muerte, se puede transformar y se transforma de hecho, como lo prueban multitud de ejemplos en el dolor perfecto llegando a la perfecta expiación.

Orixek argi adierazten ditu pasarte luze honetan bere ideiak. Kainek bere anaia Abel hil zuenean Jaungoikoak hots egiten zion. Era berean, Davidek bekatu bikoitza egin zuenean Nathan profetak parabola baten bidez haren bekatu bikoitzaren berri eman zion. Ideia hau oso garbi adierazten du Orixek. *Euskaldunak* poeman ere heriotzak egin dituen Imozko apezgaia eliza batera sartu eta apaizaren sermoiko hitzak geziak bezala sartzen dira bere kontzientzian. Horra, beraz, Orixeren “Los reos poetas” saila. Hiltzaileak egin dituen heriotzak kontatu ondoren damua dator. Orixek artikuluko Dabid eta Nathanen pasarte ere bertsoetan ematen du:

3

Eliz batean sartu naiz eta
aditu dut bear ainbat;
oiu sarkorrak entzunik ere
biotza zekena daukat.
Apaiza ari zan, pekatu egin
ta gorde oi dunarentzat:

neretzat jator itzegin arren,
nik ez itz aiek neretzat.

4

Jainkoa (apeza) “Kain” oiuka
ta Dabidí igarle Natan;
barnean piztu nai zuen arra
neronek itotzen nuan.
Aiek gogor, ni ez biguiñago,
aldegin nizun andikan,
piztu nai zuen ar arengandik
iges egin ote-nezan.

Orixek bere artikuluan dioen “Hace falta la voz poderosa de Dios o de algún delegado suyo para despertarlos de esa triste modorra” ulertzeko ezin hobeto dator *Euskaldunak* poemako Jaungoikoaren ordezkoa den apaiz meza-emailea. Jaungoikoak Imozko apezgaiari ematen dion abisuak ez du sortzen damurik. Denboragarrenean, ordea, behin justiziak atzitu ondoren, bigarren apezarekin egingo du topo kriminalak. Apez honekin kriminala lehenengo lotsatu egiten da eta gero damutu. Orixek dioen bidea hori berori da: *La plena reflexión del delito engendra como primer afecto la vergüenza, que, pasando por el dolor, llega al amor perfecto*. Lotsatzearen kontua garbi baino garbiago dago adierazirik ‘Imoz’ko apezgaia’ sailean:

6

Nere buruaz, noizbait bear ta,
lotsatzen nintzan asia;
eriotzaren mugatik ara
ba da leize izugarria.
An erortzea jakiña neukan
ez ba nun damu bizia;
apeza laister eskatu nizun
ta, argaz, zeruko grazia.

3.3 Damua bera da Orixerentzat inportanteena eta ez heriotza-gertaerak

Orixek –neurri batean, bai, behintzat– urkabe-bertsoak estimatzen eta famatzen ditu, erdarazko artikulutik garbi atera daitekeenez, ez bertsoetako gertaera odoltsuak ederrak direlako, edo modu indartsuan heriotzak adierazirik daudelako, baizik eta batez ere kriminalaren damua garbiro adierazia da goelako. Orixek ideia nagusi horrekin giltzatzen du bere 1927ko artikulua:

Aquellos de nuestros poetas que han estampado sus versos en algo más estable que las hojas volanderas, no han aprovechado tan inspirador asunto y tan digno de la poesía, ya que, como hemos insinuado, se trata de celebrar no un insigne crimen, sino un insigne arrepentimiento. Hoy las leyes no permiten la ejecución de los reos en público. Esta es la causa de que aquel imponente acto haya perdido su carácter de trágica solemnidad, de profunda enseñanza y escarmiento. Por otra parte, la fe va amortiguándose, y en alguna tentativa que se ha hecho de rimar sucesos parecidos, aparece completo desvío del sentido artístico y cristiano. La descripción prolija de todos los antecedentes y móviles del crimen, con todas las circunstancias que lo acompañaron y siguieron es la degeneración que ha sufrido este género por medio de la novela o del folletín. El crimen excita hoy la curiosidad más que la enseñanza.

Invitamos a nuestros poetas que con más éxito pulsan la lira a que fijen su atención en esta fuente, que así se ha enturbiado y aun cegado: a que ensayen la reconstrucción de este género lírico-trágico en historias antiguas o actuales, que no han de faltar; a que no se divorcien del pensamiento y sentimiento de un pueblo, que con tan buen instinto cantó lo que le inspiraba su fe cristiana, formando pie de los grandes extravíos de la humanidad.

Orixek pasarte harrigarri honetan aurreko zenbait ideia indartu eta berriak ematen ditu. Krimenak kontatzen dituzten urkabe-bertsoen helburua ez da gertaera odoltsuak ematea,

egiazko damua azaltzea baino. Urkabe-bertsoak sortzen dituen pertsonaren helburua sermoia edo damua azaltzea da. Horregatixe bihurtzen da urkabea pulpitu edo sermoi-aulki. Heriotzen deskripzioak kondenuatuaren damua lausotzen du Orixeren ustez. Esaldirik argigarrienetakoa hauxe da:

La descripción prolija de todos los antecedentes y móviles del crimen, con todas las circunstancias que lo acompañaron y siguieron es la degeneración que ha sufrido este género por medio de la novela o del folletín.

Orixek ideia hau eman ondoren bere garaiko poetei (hemen bertsolariak eta orlerkariak sartu beharko genituzke) urkabe-bertsoetako genero liriko-tragikoa indarberritzeko deia egiten die. Azken dei hau edonor harri eta zur uzteko modukoa da.

Eman dezagun, kasurako, ‘Berso berriac lapur famatuarenac’ saila. Orixek sail honetan, hasierako hogeit hamar bertsoak beharrezkoak, azken seiak estimatzen zituen, damua agertzen dutenak. Hona hemen, zenbait²:

23

Jaungoicuen ofenzac
ditut gustis damu,
arren misericordia
nisas izan susu;
Lucifer lagunaquin
Ceruan asia da
pecatuagatican
dago infernuan.

24

Ni gueyago eguinda
bisi nais munduan
ez daquit neretzat ere
ser sentenci dagoan;
amaica ordu santuac
ya dira aurqui,
il biardet eta gustis
nago larriya.

² Bertso-sail beraren hainbat aldaera daude. Bertso hauek Koldo Mitxelena Kulturuneko C-559 F-61 BP signatura duen kantapaperetik kopiaituak daude.

25

Contua emateco
gure Jesus onari
adios mundutarrac
eta nere aita eta ama;
senidiaquin batian
adisquide danac,
acabatzen dirade
nere munduco lanac.

26

Arren laguna deidala
gure Jesus onac,
oguei ta bost urtequin
banua mundutic;
orra baten oquerrac
asco ecarri nisas
mundu gucia
escarmentau bedi.

Lapur famatuaren bertsoek baino maila handiagoa dute ‘hamalau heriotza’-renek. Orixek sail guztitik Euskal Herriko eta Kataluniako gertaerak miretsi beharrean (bigarren bertso-tik hasita hamabosgarrenerainokoak) damua adierazten duten lehen bertsoa eta azken seiak hobetsiko ditu:

16

Pecatua zala ere
ez nuan nic uste
bertatican jartcen naiz
barcacio esque,
calabozo batean
biotcetic triste
nere sententia ere
bota emen dute,
bein garrotea eman da
laurdenduco naute.

Ceruco Erreguiña

Anima gassoentzat
eguizu aleguiña,
erremediatceco
nere utseguiña,

18

Ea bada munduac
desamparatuac
ongui adi itzazute
nere trabajuac;
eguiaren bidean
daude probatuac
onetara baño len
atera contuac,
munduan onena ere
ez guera Santuac.

17

Sobra da ori neretzat
castigu ariña
munduan pagatcecoz
len gaizqui eguiña,
Virgiña Santisima

19

Ah cer errematea
 munduco gustoac
 ni becelaco asco
 badira nastuac,
 cembait barcatcen digu
 Jaungoico justuac
 baña ez dira egongo
 chochoan aztuac,
 guero pagatcen dute
 anima gassoac.

20

Nere gaiztaqueriac
 acabatu dira
 biotcetic jarcen naiz
 Jaunari beguira,
 nic galdu ditu[d]anac
 salbatcen balira
 guztioac joateco
 Ceruco glorira,
 orra mundu tristea
 nere despedida.

Azken pasarte honetan, gure ustez, Orixe kristauak ezabatu egiten du Orixe kontalaria. Bere fede eta sinesmenak urkabe-bertoetako damua adierazten duten bertsoei duten baino baliogehiago ematera eramaten du. *Santa Kruz apaiza* idatzi zuen Orixe idazleari, ostera, urkabe-bertoetako mentura-gerterak inolako dudarik gabe askoz gehiago gustatu behar zitzaizkion, nahiz eta garbiki adierazi justu kontrakoa:

La descripción prolija de todos los antecedentes y móviles del crimen, con todas las circunstancias que lo acompañaron y siguieron es la degeneración que ha sufrido este género por medio de la novela o del folletín.

5. Urkabe-bertoetan heriotza deskribatzen duten bertsoak dira onenak

Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica* liburu gogoangarrian ikasi genuen bertsolariak bertsoak atzekoz aurrera egin ohi zituela. Bertsolariak azken puntua asmatu ondoren osatu ohi du bertsoa. Manuel Lekuonak zioenez, bertsoan azken puntuak izan ohi du, gehienetan, indarrrik handiena. Manuel Lekuonak latinezko esapide labur batez laburtu ohi zuen: *in cauda venenum*. Aurreko puntuan “Hamalau heriotza” saileko damua

adierazten duten zenbait bertso eman ditugu. Puntu honetan kontakizuna adierazten duten hiru bertso aldatuko ditugu bertsoen esan-indarraren handia markatzeko. Gure bertsoak aldatzeko iturria 1826 urtean agertu zen bertso-papereko saila izango dugu. Hona sail horretako laugarren bertsoa:

4
 Gorputceco icara
 animaco lotsa
 cerren eguin ditudan
 amalau eriotza,
 aditu ezqueroztic
 diruaren otsa
 bidera irten eta
 botatceco polsa,
 ateraco niola
 bestela biotza.

Bost puntuko bertso honetan “ateraco niola/ bestela biotza” esaldia indartsua da benetan. Alda dezagun, azken puntuaren indarraren adibide bezala, zazpigarren bertsoa:

7
 Estimatu ninduten
 Conde bat bezala
 sillan eserirican
 afaldu nezala,
 Nagusia eta bioc
 etciñen giñala
 conformatu ciraden
 familia[n] ala,
 pechutic sartu nion
 berari puñala.

Bertso honek indar berezia du. Gertaera batzuen ondoren, ondo eginaren paguaren ondoren, harritzen gaituen izugarrikeria bat dator (“ondo eginaren pagua, ate ostean palua”

esaerarena): petxutik sartu nion berari puñala. Zortzigarren bertsoa ere diogunaren adibide ezin garbiagoa da:

8
Oietic saltatu zan
erio igasi
nigandic alacoric
etzuen mereci,
Alabac zuenean
Aita ala icusi
Apaiza ecertcera
bertatic zan asi,
aizcora triste batez
nion burua ausi.

Azken puntua izan ohi da “in cauda venenum”, hots, bertsoaren eztenkada edo aizkorakada. Hiru adibide hauek garbi baino garbiago adierazten dute. Uste dugu, bestalde, kontaketaren hiru adibide hauek kontaketaren sermoia baino askoz indar handiagoa dutela.

Bada, azkenik, puntu honetan azaldu nahi dugun zerbait. Betiere sail bateko bertsoarik indartsuenak gordetzen dira herriaren memorian. XX. mendean bildu diren ahozko sail zenbaitetan atal honetan aldatu ditugun hiru bertsoak datoz. Manuel Lekuonaren beraren *Literatura oral euskerica* lanean, “Amalau eriyotzena”, sailean, 155-158 or., puntu honetako hiru bertsoak gordetzen dira. Aurreko puntuko 16, 17, 18, 19, 20 bertsoak –sermoia- ez dira gordetzen...

6. Orixek ‘Imozko apezgaia’ urkabe-bertsoekin generoa berritu nahi du

Orixek *Euskaldunak* poeman ez zuen –erraz frogatuteke bezalaxe– ezagutzen zituen bertso-paperetako urkabe-bertsoarik transkribatu. Orixek *Euskaldunak* poeman edertzat zituen zenbait herri-kantu zein autore-dun-kantu berritzen ditu. Kantu

horiek ‘Oi bart’, ‘Emezortzi serore’, ‘Ardo gorri naparra’, ‘Ni il-tzen naizen egunean’ eta ‘Txanton Piperri’, ‘Besta biharamuna’ dira. Kantu hauen ondoren ‘Alos torrea’, ‘Goizean goizik’, ‘Atharratze-jauregian’ baladak dakartza, baina urkabe-bertsorik ez du transkribatzen. Zergatik ote? Arrazoa garbiro dio Imoz’ko apezgaiaren oin-oharrean: *Urkabe-bertsorik, osorik eta gisakorik, ez dut arkitu emen sartzeko. Neronek antolatu dut oiturari nagokiola*. Kasu honetan Orixek bera da, bere hitzen kontra, 1927urteko artikuluan dioena betetzen duena: “En nuestra siempre desdeñada y no bien conocida literatura popular”. Orixek errefuxatu egiten ditu euskarazko urkabe-bertsorik “gisakorik” eta “osorik” aurkitu ez zituelako. Orixek gure tradizioa ondo ezagutzen zuen, baina ez zen inola ere biltzailea izan, ez baitugu ezagutzen berak bildutako kanturik ez ahozko tradizioiko beste inolako piezarik, puska bat edo beste izan ezik.

Ezagutzen zituen, batetik, zenbait bertso-puska, seguru asko tradizioz entzundakoak; eta, bestetik, ezagutzen zituenak ez omen zitzaizkion ederrak iruditzen, hots, berak deitzen zituen “gisakoak”.

Orixek, bestalde, zein urkabe-bertsorik ezagutuko ote zituen? Zeintzuk diren aipatzen dituenak ikusi dugu goiko puntu batean, hortik gora uste dugu ez zituela asko ezagutuko. Kontu ezaguna denez, Lanzko lapurren bertsoetan ez dira kontatzen Lanzko lapurrek egin zituzten heriotzak, hiru anaia lapurren urkamendiko urkaketa baizik.

7. Ondorioa

Artikulu honetan Orixeren urkabe-bertsoren gaineko ideiak aztertuz ‘Imozko apezgaia’ bertso sailaren azalpena ere eskaini nahi izan dugu. Era berean, Orixek urkabe-bertsoren gainean zituen ideia bixien gaineko saio bat egin nahi izan dugu. Ideia horietan bi behintzat ez direla zuzenak frogatzen saiatu gara. Hiltzailea ez da bertsoen egilea eta hiltzaileak ez ditu urkabean

bertsoak kantatzen. Urkabe-bertsoak, gehienetan (edo kasu guztietan, kontrakorik demostratzen ez bada), bertso-jartzaile batek egin ohi ditu urkaketaren ondoren. Hiltzaileak urkabea eser-aulki edo pulpitua bihurturik bertsoak kantatzea inozotasun erromantiko batetik hurbil dago. Bertsoen sermoi-alderdia gertaerena berena baino inportanteagoa izatea ere gure ustez zalantzazkoa da. Are gehiago, ezagutzen ditugun urkabe bertso-sail gehienetan –eta are guztietan esatera ausartzen gara– bertso-sailaren alderdi ahulena, inolako dudarik gabe, bukaerakoa da, sermoiaren tankera hartzen duena. Sermoi-alderdia –literaturaren ikuspegitik begiraturaz gero– ahulena denez gero, jendearen memorian nekez iltzatzen da. Diogunaren adibide garbi bat da “Hamalau heriotzena”.

Jabier Kaltzakorta

Bibliografia:

- ARANZADI, Telesforo, (1925), *Guillermo de Humboldt y el País Vasco*, San Sebastián.
- EIZMENDI, I. “Basarri”, (1962), “Nere bordatxotik” in *Aranzazu*, Maiatza, 148-149 or.
- GRIFFIN, A. (2015) *Halfway to hell Albokarako 333 doinu. 333 tunes for the alboka*, Hernani.
- HARITSCHELHAR, J. (1963), “Contribution à l’étude de la littérature basque: Martin Larralde-Bordachuri, le poète-galérien”, *Gure Herria*, hazila, 257-286.
- KALTZAKORTA, J. (1999), “*Alabaren heriotza*-ren aldaera berri bat”. *Idatz & Mintz*, 29 zenb., 1999, 16-23 or.
- “Bertso jarrietatik ahozkoa (Urkabe-bertsoak euskaraz: estudiante gaztearenak eta beste”, *Mendebalde Kultur Alkartea. Jardunaldiak. Abozkotasuna aztergai* 7, 11-37 or., 2003.

- "Alabaren heriotza' bertso-sailaren lau aldaera", *Karmel*, uztaila-iraila, 2019-3, 307 zenbakia, 3-24 or.
- LEKUONA, Manuel de, (1935), *Literatura oral euskérica*, Itxaropena, Zarauz.
- MICHEL, Francisque, (1857), *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Firmin Didot, Paris.
- ORMAETXEA, Nikolas "Orixe", (1950), *Euskaldunak poema XV kantuetan*, Itxaropena, Zarautz.
- URRUZUNO, P. M. (1906), "Balentin Berrio-Ochoaren bizitza bertsoetan", in SAINZ, M. M. (1906)(Itzulpena Pedro Migel Urruzuno) *Santo Domingoren ordenaco martiri Balentin Berrio-Ochoa Doatsuaren bizitzaren berri labur bat Ordena orretako Praille Aita Manuel M^a Sainz-coac erderaz esribitu zuan bizitzatic aterea, eta eusqueraz ipiñia eusacaldun batec*. Impr. de El Santisimo Rosario, Bergara, 1906, 149-156.
- ZAVALA, A. (1969), *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria (1855-1905)*, Auspoa Liburutegia, nº 82.